

2019-2020

2. ZIRKULARRA

2. URTEKO ALEBIN MUTILEN FUTBOL MODALITATEKO LEHIAKETA: **HOBKUNTZA IBILBIDEAREN ANTOLAKETA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntzarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako eskola kirolean irakaskuntza hastapeneko jardura baimendua den bigarren urteko alebin mailako kirol eskolen arteko eta klubaren lehiaketa antolatzen du.

1) KLUB PARTAIDEAK

- 1. MULTZOA (5 TALDE):** C.D LANDETXA, PASAIA K.E, BILLABONA F.K, C.F TEXAS, SPORTING DE HERRERA
- 2. MULTZOA (6 TALDE):** IDIAZABAL K.E, ALOÑA MENDI K.E, C.D URKI, AMAIKA BAT K.E, MUTRIKU F.T, S.D ILINTXA

2) LEHIAKETA ANTOLAKTEA

Bigarren urteko alebinen kategoriako hobekuntzarako ibilbidean 11 ekipok eman dute izena. Hauek 2 multzotan banatuko dira: multzo batean 5 ekipa egongo dira eta bigarren multzoan 6 ekipa. Multzoen osaketa hurbiltasun geografikoa jarraiki egingo da.

- **1. FASEA: HOBKUNTZA IBILBIDEAN IKASTURTE HASIERAN IZEN-EMAN DUTEN TALDEENTZAKO**

Partidak kontzetrazio moduan jokatu dira. Partidak lehiaketaren egutegian beltzez azaltzen den klubaren zelaian jokatuko dira, guztira 5 partida. Norgehiagokak, egun hauetan jokatuko dira: 2019/10/27, 2019/11/10, 2019/11/24, 2019/12/01, 2019/12/15.

- **2.FASEA: HOBKUNTZA IBILBIDEA**

Errendimenduan hasteko ibilbidean parte hartzeko sailkatu ez diren taldeak (17 talde) eta ikasturte hasieran hobekuntzako ibilbidean izena eman duten taldeak (11 talde) arituko dira bigarren fase honetan (guztira 28 talde). Eskola kiroleko aplikazioan izen-emateen tramitea errazte aldera, **Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain hobekuntzako ibilbidean parte hartuko duten taldeak aplikazioan inskribatzeaz**. Bertan, lehenengo fasean aritu diren jokalaria berberak inskribatuko dira.

Bigarren fase hau, 7 jardunaldiz osatua egongo da eta partidak egun hauetan izango dira (beti igandeetan): 2020/01/19, 2020/02/09, 2020/03/01, 2020/03/22, 2020/04/26, 2020/05/03, 2020/05/31.

28 talde horiek 7 taldeko 4 multzotan antolatuko dira (A, B, D eta E multzoak). Banaketa hau hurbiltasun geografikoa jarraiki egingo da. Multzo bakoitzeko taldeen haien artean jokatu dute kontzentrazio moduan. Partida hauek lehiaketaren egutegian beltzez azaltzen den futbol eskolaren zelaian jokatu dira.

Lehenengo 6 jardunaldien ostean, sailkapena eratuko da:

A multzoa	B multzoa	D multzoa	E multzoa
A1º	B1º	D1º	E1º
A2º	B2º	D2º	E2º
A3º	B3º	D3º	E3º
A4º	B4º	D4º	E4º
A5º	B5º	D5º	E5º
A6º	B6º	D6º	E6º
A7º	B7º	D7º	E7º

7. jardunaldia (2020/05/31): Azken jardunaldia Zubietako instalazioetan jokatu da eta talde bakoitzak bere “fase final” partikularra jokatu du. Talde bakoitzak 2 partida motz jokatu ditu, final-erdiak eta final formatuan. Partida bakoitzak 15 minutuko 2 zati izango ditu.

1go partiduko gurutzaketak (final-erdiak) egiteko multzo bakoitzeko lehenengoak, bigarrenak, hirugarrenak, laugarrenak, bosgarrenak, seigarrenak eta zazpigarrenak multzokatuko dira.

1ºgo Sailkatuak (1 multzoa)	2. sailkatuak (2 multzoa)	3. Sailkatuak (3 multzoa)	4. Sailkatuak (4 multzoa)	5. sailkatuak (5 multzoa)	6. sailkatuak (6 multzoa)	7. sailkatuak (7 multzoa)
A1º vs B1º D1º vs E1º	A2º vs B2º D2º vs E2º	A3º vs B3º D3º vs E3º	A4º vs B4º D4º vs E4º	A5º vs B5º D5º vs E5º	A6º vs B6º D6º vs E6º	A7º vs B7º D7º vs E7º

Bigarren partiduko gurutzaketak egiteko (finala), multzo bakoitzeko irabazle eta galtzaileek beren artean jokatu dute.

Zazpigarren jardunaldiko partidaren batetan berdinketa egonez gero ondorengo irizpideak aplikatu dira:

- Txartel gorri kopurua.
- Txartel hori kopurua.
- 3 penalti jaurtiketa. Berdinketa egonez gero, aldizkakoki penaltiak jaurtiko dira berdinketa egoera hautsi arte.

3) JARDUERA OSAGARRIAK

Teknikakzio jardueren barnean Real Sociedaden Gabonetako Txapelketa dugu. Txapelketa hau Zubietako instalazioetan egingo da Gabonetako opor garaian, zehazki, abenduaren 23an egun osoz eta 24an goizez.

4) EKINTZEN BATERAGARRITASUNA

Jarduera hauetan aritzeko ezinbestekoa da ikastetxeetako eskola kiroleko programan izena ematea eta parte hartzea.

5) LIZENTZIAK

Talde bakoitzeko lizentziak gehienez 16 izango dira, justifikatutako egoerak salbu. Hala ere, 2019ko abenduaren 1a baino lehenago altak eta bajak konpentsatu daitezke. Tramite hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Eskualde Bulegoetan egin daitezke.

Talde parte hartzaileek taldearen triptikoa eraman beharko dute dagokion Kiroletako Eskualde Bulegoak sinatuta. Triptiko hau eskola kiroleko aplikaziotik eskuratuko da.

6) ADINA

Soilik 2008an jaiotako ikasleak.

7) JOKALARI KOPURUA ZELAI JOKOAN

Gehienez 8 jokalaria, gutxienez 6 jokalaria.

Gutxienezko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalariai lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, nahiz eta partida jolasteko aukera egon.

8) IRAUPENA

Partidek 60 minutuko iraupena izango dute, 20 minutuko 3 zatiekin (azken zatian aldaketa libre izango dira). Bigarren zatian, aurrekoan parte hartu ez duten ikasleek parte hartu beharko dute. Halere, aldatutako jokalariek bigarren zati honetan ere parte hartu dezakete, baina lehen zatian jokatu duten jokalariai ordezkatzuz bakarrik.

Era berean, 15 minutuko 2 zatiko partiduetan, honako irizpidea jarraituko da: bigarren zatian, aurrekoan parte hartu ez duten ikasleek parte hartu beharko dute. Hala ere, aldatutako jokalariek bigarren zatian ere parte hartu dezakete, baina lehen zatian jokatu duten jokalariai ordezkatzuz bakarrik.

9) DEIALDIA

Aurreko ikasturteko irizpide berdinak jarraituz, taldea osatzen duten jokalarien %75a deialdian eta partiduan egon beharko da. Arau hau betetzen ez bada eta aurrakoa taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatua izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko arrazoiak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

10) BALOIA


Baloia 4 zenbakikoa izango da.

11) ZELAIAREN ETA PORTERIEN NEURRIAK

Zabalean jokatuko da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den, gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluzuzena izango da. Ateak 6 metro luzeeran (zutoina) eta 2 metro altueran (langa) izango du. Neurri hauek kontuan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobetxatuz marraztu daiteke.

12) PENALTI EREMUA

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko poste bakoitzetik 9 metrotara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroa egiten duten eremua, penalti eremua izango da.



13) PENALTI PUNTUA

9 metrotara eta erdian markatuko da penalti puntua.

14) ATE EREMUA

Penalti eremua bezala, bakarrik ateko poste bakoitzetik 3 metrotara.

15) ASEGURUA

Eskola arteko lehiaketa bat denez, Gipuzkoako Futbol Federazioari ez dagokio laguntza medikuaren estaldura, beraz lesioren bat gertatuz gero, Gizarte Segurantzza Publikora edo jokalariairen ama edo aitak duen aseguru pribatura joan behar dute.

16) EPAILEAK

Epaile kolegiatuek arbitratuko dituzte futbol eskolen arteko partidak.

17) DIZIPLINA ARAUAK

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eginkizunak eskuordetzearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, arau jurisdikzionalari jarraiki, horien aurkako errekurtsioa aurkeztu daiteke.